

2018 URR: 29
OCT: 29

Hora/Ordua: 13:35
Zbkia./N.º 698
REGISTRO DE ENTRADA
SARRERA ERREGISTROA

AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO

El grupo municipal UdalBerri-Bilbao en Común presenta al próximo Pleno Ordinario esta proposición para su debate y aprobación relativa a la “rendición de cuentas de los representantes públicos y los privilegios de la Casa Real”.

PROPUESTA

1. El Pleno del Ayuntamiento de Bilbao insta al Congreso de los Diputados a reformar el Código Penal (arts. 490.3 y 491) ajustándolo a lo establecido por la Convención de los Derechos Humanos (art. 10), tal y como puso de manifiesto el Tribunal Europeo de Derechos Humanos, para que de este modo el derecho al honor de la Casa Real goce de la misma protección que el de cualquier otro ciudadano o ciudadana del Estado.
2. El Pleno del Ayuntamiento de Bilbao insta al Gobierno Vasco a realizar un sociómetro específico sobre la percepción de la ciudadanía vasca de la casa real y sus preferencias políticas sobre la jefatura del estado.

JUSTIFICACIÓN

Partiendo del principio democrático el cual establece que todo cargo público de representación ciudadana debe ser elegido y renovado periódicamente a través de elecciones, el mismo debería hacerse extensivo a la Jefatura del Estado y a la Casa Real, avanzando con ello hacia un modelo republicano.

A nivel estatal han sido varios los escándalos y denuncias de corrupción que afectan a la Jefatura del Estado, esto exige que puedan ser investigadas completamente por el poder judicial. Así, como cualquier cargo público, deberían rendir cuentas y ser fiscalizados por el poder legislativo, en este caso, por el Congreso de los Diputados.

Casos como el de Urdangarín y la Infanta, las cacerías en Botswana, la actuación del exjefe de la Casa Real o las conocidas como grabaciones de Corinna han generado una grave crisis en la institución. En este sentido, la ciudadanía está manifestando un creciente desapego y exige que gocen de la misma protección, ni más ni menos, que cualquier ciudadano o ciudadana. Especialmente, cuando se trata de rendir cuentas ante la justicia.

En paralelo, el Código Penal ofrece más protección a la Casa Real que a cualquier otra institución o ciudadano del Estado, a través del delito de injurias a la Corona (artículo 491). Este aspecto que ha sido cuestionado varias veces por la justicia europea, que considera que los ordenamientos jurídicos no pueden otorgar una protección especial y cualificada a sus cargos e instituciones más importantes. Más bien al contrario, deben permitir un amplio grado de crítica por tratarse de instituciones públicas sujetas al cuestionamiento y escrutinio ciudadano en el marco de una democracia.

En similares términos se expresó el Tribunal Europeo de Derechos Humanos en marzo de 2018 cuando dictó una sentencia en la que consideraba que la Audiencia Nacional y el Tribunal Constitucional vulneraron el artículo 10 de la convención de Derechos Humanos sancionando una expresión simbólica de crítica legítima a la monarquía.

Asimismo, ha sido objeto de controversia el propio desempeño de las funciones de Jefatura del Estado. Y es que en momentos de grave crisis institucional, social y territorial lo mínimo que se podría esperar de esta institución es que haga una aportación al entendimiento entre diferentes y que se abstuviera de hacer pronunciamientos de parte que agraven esos conflictos.

Por todo ello, el fin que inspira esta iniciativa es abrir de forma constructiva un debate político que sea la expresión de los problemas objetivos de la actual jefatura del estado y del sentir de la ciudadanía vasca al respecto.

Bilbao, a 29 de octubre de 2018.



Fdo. Carmen Muñoz López

Concejala UdalBerri-Bilbao en Común

BILBOKO UDALAREN OSOKO BILKURARI

UdalBerri-Bilbao en Común udal-taldeak "ordezkari publikoen kontu-emateari eta Errege Etxearen pribilegioei" buruzko proposamen hau aurkeztuko du hurrengo Ohiko Osoko Bilkuran, eztabaidatzeko eta onartzeko.

PROPOSAMENA

1. Bilboko Udalaren Osoko Bilkurak Zigor Kodea (490.3 eta 491. artikulua) erreformatzeko eskatzen dio Diputatuen Kongresuari Giza Eskubideen Konbentzioak (10. artikulua) ezarritakora egokituta, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak adierazi zuenez, Errege Etxearen ohorerako eskubideak estatuko beste edozein herritarrarenak duen babes bera izan dezan.
2. Bilboko Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio soziometro espezifiko bat egin dezala euskal herritarrek Errege Etxeari buruz duten pertzepzioa eta Estatu Buruzagitzari buruz dituzten lehentasun politikoak zein diren jakiteko.

JUSTIFIKAZIOA

Edozein kargu publiko aldizka hauteskunderen bidez aukeratua eta berritua izango dela ezartzen duen printzipio demokratikoa abiapuntutzat hartuta, Estatu Buruzagitzari eta Errege Etxeari zabaldu beharko litzaioke eskakizun hori, eredu errepublikar baterantz aurrera eginez.

Hainbat eskandaluk eta salaketak hartu dute eraginpean Estatu Buruzagitza estatu osoan, eta botere judizialak kasu horiek osorik ikertu ahal ditzala eskatzen du horrek. Horrela, kontuak eman beharko lituzteke, edozein kargu publikok bezala, eta botere legegileak –kasu honetan, Diputatuen Kongresuak– fiskalizatu beharko lituzke.

Urdangarin eta Elena infantaren kasuak, Botswanako ehizaldien kasuak, Errege Etxeko buru ohiaren jardunaren kasuak edo Corinnaren grabaketak bezala ezagututako kasuak krisialdi larria eragin dute erakundean. Ildo horretan, herritarrak aldentze gero eta handiagoa ari dira adierazten erakundearekiko eta exijitzen dute edozein herritarrek duen babes bera –ez gehiago, ez gutxiago– izan dezatela. Bereziki, justiziaren aurrean kontuak eman behar diren kasuetan.

Horrekin batera, Zigor Kodeak babes handiagoa ematen dio Errege Familiari estatuko edozein erakunde edo herritarri baino, Koroari egindako irainen delituaren bidez (491. artikulua). Europako justiziak hainbat alditan jarri du zalantzan puntu hori, justizia horren arabera antolamendu juridikoek ezin baitiete babes berezi eta kualifikaturik eman antolamendu horretako kargu eta erakunde garrantzitsuenei. Aitzitik, kritika-maila handia onartu behar dute herritarren galderen eta azterketaren mende dauden erakundeak direlako, betiere demokrazia baten esparruaren barruan.

Antzekoa adierazi zuen Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2018ko martxoan emandako epaian, zeinean ezartzen baitzuen Auzitegi Nazionalak eta Konstituzio Epaitegiak Giza Eskubideen Konbentzioaren 10. artikulua urratu zutela monarkiaren aurkako zilegizko kritika biltzen zuen adierazpen bat zigortu zutenean.

Era berean, eztabaidagai izan da Estatu Buruzagitzaren funtzioen egikaritzapena bera. Izan ere, arlo instituzional eta sozialeko, eta lurralde-arloko krisialdi larriko une hauetan, erakunde horrengandik espero zitekeen gutxienekoa zera izango zen, desberdinen arteko elkar ulertzerako ekarpena egitea, eta horrekin batera, alderdi-adierazpenik ez egitea gatazka horiek ez larriagotzeko.

Horregatik guztiagatik, ekimen honen helburua debate politiko bat modu konstruktiboan zabaltzea da, egungo Estatu Buruzagitzak planteatzen dituen arazo objektiboak aztertu eta horren inguruan euskal herritarrek duten iritzia adierazteko.

Bilbo, 2018ko urriaren 29a.



Sin.: Carmen Muñoz López

Udalberri - Bilbao en Común taldeko zinegotzia